



01

## MONOGRÁFICOS K BULEGOA MONOGRAFIKOAK

**Artista bisualak: sorkuntzak eta harremanak artikulatu eta indartu**

**Artistas visuales: articular y fortalecer relaciones y creaciones**

2020ko abenduaren 15a - 15 de diciembre de 2020

Monografikoak K bulegotik garatuko dugun prestakuntza-planaren parte dira. Hileroko saioak izango dira eta hiru hilez behingo prestakuntza-saio batzuekin konbinatuko ditugu. Saio hauetan sorkuntzarekin, komunikazioarekin eta kudeaketarekin lotutako gaiak landuko ditugu.

Joan den abenduaren 15ean K bulegoaren lehen monografikoa egin zen. Gipuzkoako ikusizko arte eta arte plastikoen esparrua artikulatzeko aukerei buruzko gogoeta saio bat izan zen; izan ere, K bulegoaren hasieratik, sorkuntza plastikoa eta bisuala errazten duten ehun eta baldintzak indartzeko ahalmenak batu eta partekatzeko beharrarekin lotutako eskaerak jaso ditugu.

Pertsona askok jotzen dute K bulegora sorkuntzen garapenean edo ekoizpenean aurkitzen dituzten arazo desberdinen garapenean laguntza eskatzera. Askota proiektuen garapen jasagarria zailtzen duten gaiak zerikusia dute ikusizko arte

Los monográficos forman parte del plan de formación que estamos desarrollando en K bulegoa. Son encuentros mensuales que se combinarán con otras sesiones formativas trimestrales y en los que trataremos temas relacionados con la creación, la comunicación y la gestión cultural.

El pasado 15 de diciembre se realizó el primer monográfico. Se trató de una sesión de reflexión sobre las posibilidades para articular el ámbito de las artes visuales y plásticas en Gipuzkoa. Desde el inicio de K bulegoa, hemos recibido peticiones relacionadas con la necesidad de aunar y compartir fuerzas para reforzar los tejidos y facilitar las condiciones de la creación plástica y visual.

Son muchas las personas que acuden a K bulegoa para solicitar ayuda para solventar los diferentes problemas que encuentran en la creación y en la producción cultural. Las cuestiones que en muchas ocasiones dificultan el desarrollo

eta arte plastikoen eremuan sarerik ez egotearekin, tartean hainbat praktika bultzatzeko baldintza egokiak dituzten sorkuntza-espaziorik ez egotearekin eta ikusizko sorkuntzetara iristea ahalbidetuko duten bitartekaritza-prozesuen beharrarekin.

Kultur sorkuntza eta ekoizpena izugarri zaildu diren garai hauetan, kultur sektoreko praktika artistikoen egoera zehatzago aztertzeke galdeketa ugari egin dira sektorearen barruan artikulatuak dauden praktika desberdinetan lan egiten duten artisten egoera eta beharrak aztertzeke. Artista batzuk besteak baino saretuagoak daude eta hau beharrak eta hobekuntzak lantzen joateko lagungarri dela badakigu, aldiz, ikusizko artista eta artista plastikoen egoera zaila da eta artikulazio falta dago.

Honi erantzuteko sortu da Bilbon "[Artistak-etc](#)" elkarte, Covid-19aren krisiak arte plastiko eta bisualetan izan duen eraginari erantzun kolektiboa ematea helburu duena. Saioaren hasieran, kolektibo berri hori aurkeztu zen.

Jarraian, parte hartu zuten artisten kezkei buruz hitz egiten jarraitu zen, eta ideia hauek izan zituzten hizpide nagusiki:

- Diziplinetatik haratago lankidetzan aritzeko beharra. Sarean lan egitea kolektiboek zein partikularrek, bai eta aholkularitza-zerbitzu publikoek (K Bulegoa, Kultur Araba) edo sektoreko elkarte espezifikoek ere (Ekki, Teknikariok, EIE, EAB, ADE, Musika Bulegoa, (H)emen, etab.).

sostenible de los proyectos tienen que ver con la ausencia de redes en el ámbito de las artes visuales y plásticas, la ausencia de espacios de creación con las condiciones adecuadas y la necesidad de procesos de mediación que permitan acceder a las creaciones.

En estos tiempos en los que la creación y la producción cultural se han complicado enormemente, se han realizado numerosos estudios para analizar con más detalle la situación de las prácticas artísticas en el sector cultural. Algunos artistas están trabajando sobre sus necesidades y las mejoras que pueden plantearse, pero la mayoría están en una complicada situación en la que se echa en falta cierta articulación del sector.

Para responder a esta demanda ha nacido en Bilbao la asociación "[Artistak-etc](#)" que tiene como objetivo dar una respuesta colectiva al impacto que la crisis del Covid-19 ha tenido sobre las artes plásticas y visuales. Al comienzo de la sesión, se presentó este nuevo colectivo.

Se continuó dialogando sobre las distintas inquietudes de los artistas participantes, que versaron principalmente sobre las siguientes ideas:

- Necesidad de colaborar más allá de las disciplinas. Trabajar en red, tanto los colectivos como los particulares, así como los servicios públicos de asesoramiento (K Bulegoa, Kultur Araba) o las asociaciones específicas del sector (Ekki, Teknikariok, EIE, EAB, ADE, Musika Bulegoa, (H)emen, etc.).

- Gakoak eta ikaskuntzak bezeroarekin, kultura-teknikariekin eta, oro har, publikoarekin partekatzeko beharra, sarbidea eta arte- eta kultura-esperientzia hobetzeko.

- Zenbait praktika eta lengoia artistikoekiko fobia gainditzea.

- Elkarteen eta kolektiboen lan-logikak, -ohiturak eta -mekanismoak hobetzea, egungo erronkei erantzun berriak emateko formulazio berriak ahalbidetuko dituzten baldintza inklusiboak sortzeko.

- Topaguneak eta esperientziak sortzea, ehuna aberasteko eta ikaskuntza-esperientziak errazteko.

- Sorkuntzaren eta hura garatzeko beharrezko baldintzen balioa sustatzea.

Amaitzeko, ariketa dinamiko bat egin zen eta emaitza hurrengo Manifestua izan zen.

- Necesidad de compartir claves y aprendizajes con el cliente, los y las técnico/as culturales y con el público en general con el fin de mejorar el acceso y la experiencia artística y cultural.

- Superar la fobia a ciertas prácticas y lenguajes artísticos.

- Mejorar las lógicas, hábitos y mecanismos de trabajo de asociaciones y colectivos para generar condiciones inclusivas que permitan nuevas formulaciones para ofrecer nuevas respuestas a los retos actuales.

- Crear espacios de encuentro y experiencias para enriquecer el tejido y facilitar experiencias de aprendizaje.

- Fomentar la puesta en valor de la creación y de las condiciones necesarias para su desarrollo.

Para terminar, se llevó a cabo un ejercicio dinámico cuyo el resultado fue el siguiente Manifiesto.

**Uste dugu**

Hezkuntza guztiaren oinarria dela.  
Hezkuntza hori oinarrietatik hasi behar da maila guztietan.

**Uste dugu**

Kultura lehen mailako artikulu bat dela,  
ogia bezalakoa, eta, beraz, doakoa izan behar duela, osasuna bezala.

**Uste dugu**

elkartu, ezagutu eta indarrak batu behar ditugula.

**Uste dugu**

lan duina izateko eskubidea dugula.

**Uste dugu**

beste eszenatoki batzuk sortu behar ditugula. Zikindu, espermentatu, inplikatu, partekatu, atera, kontzientziak nahastu, irauli, azaldu, ekin, heriotza prekarietateari.

**Uste dugu**

pantailatik irten behar dugula. Artea gure lanaren duintasunaren eta errespetuaren sinonimo izan dadila.

**Uste dugu**

Mesedez eta eskerrik asko esan behar dugula.

Uste dugu elkar ezagutu behar dugula, zer egiten dugun jakiteko, elkar ezagutzea, zer sinergia izan ditzakegun jakiteko.

**Creemos**

que la educación es la base de todo.  
Esa educación, a todos los niveles, tiene que empezar desde las bases.

**Creemos**

que la cultura es un artículo de primera necesidad como el pan, por consiguiente, debe de tender a ser gratuita, como la sanidad.

**Creemos**

que tenemos que juntarnos, conocernos y unir fuerzas.

**Creemos**

que tenemos el derecho a un trabajo digno.

**Creemos**

que tenemos que crear otros escenarios.  
Ensuciar, experimentar, implicarse, compartir, salir, revolver conciencias, revolucionar, exponer, hacer, muerte a la precariedad.

**Creemos**

que hay que salir de la pantalla.  
Que el arte sea sinónimo de dignidad y respeto a nuestro propio trabajo.

**Creemos**

que hay que decir por favor y gracias.

**Creemos**

que debemos conocernos, simplemente para saber qué es lo que hacemos y para saber que sinergias podemos tener.